

MINECO 2016 DEIALDIA

BIKAINASUNEZKO IKERKETA ZIENTIFIKOA ETA TEKNIKO SUSTATZEKO PROGRAMA ESTATALA. "GIZARTEAREN ERRONKAK" AZPIPROGRAMA

1. modalitatea: I+G proiektuak

OHAR GARRANTZITSUA: Jarraian zehazten diren epeak eskaera formalak aurkezteko datari egiten diote erreferentzia. Hauek nahitaez Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren egoitza elektronikoaren bidez egin beharko da.

Ikerketaren arloko Errektoreordearen sinadura lortzeko ikerlari nagusiak **2017ko ekainaren 23ra arte (barne)**, I. eranskina bete eta mezu elektroniko bidaliko du bere Ikastegiaren arabera dagokion helbidera (Ikerketaren arloko Errektoretzaren webgunean eskura daiteke eranskina). Hortik aurrera, teknikari bat jarriko da harremanetan INrekin.

BIZKAIKO CAMPUSA: igz.bizkaiadeialdiak@ehu.eus

GIPUZKOAKO CAMPUSA: igz.gipuzkoadeialdiak@ehu.eus

ARABAKO CAMPUSA: igz.arabadeialdiak@ehu.eus

Horrez gain, ministerioak ezarritako epearen baino **3 egun lehenago**, Ikerketaren arloko Errektoreordetzara aurrerago zehazten den dokumentazioa bidali beharko du.

Hala egin ezean, Ikerketaren arloko errektoreordeak eskaera sinatu ezin izateko arrisku handia egon daiteke; izan ere, Ministerioko sinatzeko aplikazio informatikoa kolapsatu egiten da azken bi egunetan.

EKONOMIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOAK EZARRITAKO EPEAK

Saila	Eskaerak aurkezteko epea
Giza eta Gizarte Zientzien Saila Teknikoa (DTHCS)	2017ko ekainaren 19tik uztailaren 10eko 15:00ak arte (barruko epea: 05/07/2017)
Bizitza Zientzien eta Nekazaritza Elikagaien Sail Teknikoa (DTCV)	2017ko ekainaren 20tik uztailaren 11ko 15:00ak arte (barruko epea: 06/07/2017)
Ingurumen eta Baliabide Naturalen Sail Teknikoa (DTMA)	2017ko ekainaren 21etik uztailaren 12ko 15:00ak arte (barruko epea: 07/07/2017)
Komunikazioen eta Ekoizpen Teknologien Sail Teknikoa (DTPC)	2017ko ekainaren 22tik uztailaren 13ko 15:00ak arte. (barruko epea: 10/07/2017)

ESKAERA FORMULARIOA

Eskaera formulario elektronikoa

Eskaera egiteko formulario elektronikoak, proiektuaren, erakunde eskatzailearen eta ikerketa taldeko kideen eta lantaldeko doktoreen identifikazio datuez gain, honako informazioa eta dokumentazioa bildu beharko ditu:

- Proiektua ebaluatzeko hautatutako kudeaketa arlo tematikoaren eta, hala balegokio, azpi-arloaren identifikazioa.
- Hautatutako erronkaren identifikazioa.
- Proiektuaren laburpena (gaztelaniaz eta ingelesez), espero den eragina eta ikertzailearen edo ikertzaile nagusien curriculumaren laburpena.
- Proiektua Doktoreak prestatzeko doktorego aurreko kontratuen deialdian

	sartzeko eskaera. (kasu hori ematen bada) • Proiektuaren emaitzetan interesatutako entitate publiko edo pribatuen identifikazioa, halakorik egonez gero. (Oharra: gutun bat aurkeztu beharko da eskuz sinatuta edo sinadura digitala erabilita eta bertan aipatutako erakundeak proiektuan duen interesa adierazi beharko du). • Onartzea ebaluazioa autonomia erkidegoetara helarazi ahal izatea, betiere erkidego horiekin batera eskainiko den programazioaren deialdietan parte hartzeko aukera dagoenean. • Proiektuak gauzatzen den estatuan edo eskualdean izango duen eragin sozioekonomikoaren azalpena. Eskaera egiteko orri elektronikoarekin batera ikertzaile nagusiak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu nahitaez: • Proiektuaren memoria zientifiko tekniko, MINECOren web gunean agertzen den eredia erabilita, adierazitako edukia, luzapena eta formatua errespetatuz. Honela egin ezean, bazterrean uzteko arrazoia izango da. – Ingelesezt edo gaztelaniazt aurkeztu ahal izango da. – Times New Roman edo Arial letra, gutxienez 11 puntukoa. – 2,5 cm-ko albo marjinak. – 1,5 cm-ko goi eta behe marjinak. – Gutxienezt tarte sinpleak. – Gutxienez 20 orrialde C atalean ("Dokumentu zientifiko"). Koordinaturikoz proiektuetan, C atalak gehienez ere 25 orrialde izango ditu. • Ikertzailearen edo ikertzaile nagusien curriculum laburra (CVA), MINECOren web orrialdean eskuragarri dagoen ereduaren arabera. (FECYTEko CVA ere onartuko da), Honela egin ezean, bazterrean uzteko arrazoia izango da. – Ingelesezt edo gaztelaniazt aurkeztu ahal izango da. – Times New Roman edo Arial letra, gutxienez 11 puntukoa. – 2,5 cm-ko albo marjinak. – 1,5 cm-ko goi eta behe marjinak. – Gutxienezt tarte sinpleak. – Gehienez, 4 orri.
Dokumentu gehigarriak	Ikertzaile nagusiak honakoz hauek aurkeztu beharko ditu: • Ikerketa taldeko kideen eta, egonezt gero, lantaldeko doktoleen curriculum laburra, adierazitakoz formatuaren arabera. (FECYTEko CVA ere onartuko da) – Ingelesezt edo gaztelaniazt aurkeztu ahal izango da. – Times New Roman edo Arial letra, gutxienez 11 puntukoa. – 2,5 cm-ko albo marjinak. – 1,5 cm-ko goi eta behe marjinak. – Gutxienezt tarte sinpleak. – Gehienez, 4 orri. • Eskatzaileek dokumentazio gehigarria aurkeztu beharko dute artikuluz honetan zehazturikoz kasu bereziren batean baldin badaude (itsas plataformak erabili behar dituzten proiektuetarako, Antartikakoz itunak babestutakoz eremuan garatu beharreko proiektuetarako eta atmosferari, klimari eta aldaketa klimatikoari lotuta dauden eta gauzatu ahal izatekoc datu meteorologikoz behar dituzten proiektuetarako). • A motakoz proiektuetan, agiri bidez egiaztatu beharko da, hala badagokio, PDF

bakar batean, doktore gradua lortzeko epemuga zabaltzeko adierazitako egoeraren bat gertatu dela aldi berean (amatasuna, aitatasuna, gaixotasun larria, mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintza).

ESKABIDEAK AURKEZTEA

1. IKERKETA TALDEEK ETA PROIEKTUEN LANTALDEEK BALDINTZAK BETETZEN DITUZTELA EGIAZTATZEA

Egiaztapen hau nahitaezkoa da ikertzaile nagusiek, ikerketa taldeetako kideek eta lantaldeetako kideek deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

Ikerlari nagusiak **2017ko apirilaren 23a baino lehen (hau ere barne)** bete eta bidali beharko du Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura daitekeen I. eranskina mezu elektronikoz. Hortik aurrera, teknikari bat jarriko da harremanetan INrekin.

BIZKAIKO CAMPUSA: igz.bizkaiadeialdiak@ehu.eus

GIPUZKOAKO CAMPUSA: igz.gipuzkoadeialdiak@ehu.eus

ARABAKO CAMPUSA: igz.arabadeialdiak@ehu.eus

Proiektuaren proposamena prestatzeko lanek aurrera egin edo ez (argibideei jarraituz), I. ERANSKINA lehenbailehen bidaltzea gomendatzen dugu. Bertan, ikerketa taldeak eta lantaldeak osatuko dituzten pertsonen zehaztasunak agertuko dira, baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ahal izateko.

I. eranskin hori bidali ezean edo eskaeran egin beharreko aldaketak bertan zehaztu ezean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ez du eskaera sinatuko, eta, ondorioz, ez da deialdian aurkeztutzat joko.

2. ESKAERAK FORMALKI AURKEZTEA IKERKETA, GARAPEN ETA BERRIKUNTZAKO ESTATU IDAZKARITZAREN WEB ORRIAN

Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira, eskaeraren eta sinadura elektronikoen bitartez (Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatu Idazkaritzaren egoitza elektronikoa eskura daitezke):

- Bi ikertzaile nagusi dituzten proiektuetan, formularioa jakinarazpenetarako bitartekari gisa izendatutako pertsonak aurkeztuko du.
- Koordinatutako proiektuetan, azpiproiektu bakoitzeko ikertzaile nagusiak eskaera bakar bat aurkeztu beharko du.

Eskaera bete eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak adierazitako aldaketak zehaztu ondoren, baliozkotu eta telematikoki aurkeztu behar da.

Oharra: Agiri hauek eskaeraren partetzat hartuko dira eta, ondorioz, **ZUZENDU EZINEKOAK** dira.

- a. Memoria zientifiko-teknikoa
- b. Ikertzaile nagusiaren CV laburtua

Dokumentu hauek deialdiaren 16.6 artikuluan zehaztutako baldintza zehatzetan aurkeztu ezean, eskaera kanpoan uzteko arrazoia izango da.

Behin eskaera aplikazioan aurkeztu ondoren, ikertzaile nagusiak email bat bidaliko du I. eranskinaren berrikuspenean jaso duen posta kontura, jakinaraziz eskaera legeko ordezkariak sinatzeko moduan dagoela. Email horri erantsiko zaio ondoko paragrafoan zehazten den dokumentazioa.

Jarraian, aplikazioak automatikoki sortzen duen dokumentua inprimatu beharko da, ikertzaile nagusiaren eta ikerketa taldeko kideen sinadura originalak bertan jasotzeko eta Ikerketaren arloko errektoreordetzara barneko postaz igortzeko, aipatutako dokumentuekin batera. Dokumentazio hori

bera e-mailez ere igorri behar da, pdf formatuan, dagokion helbide elektronikora.

- Sinadurak biltzen dituen dokumentua (eskuz egindako jatorrizko sinadura edo onartutako sinadura elektronikoa; eskaneatu gabeak)
- Memoria zientifiko-teknikoa
- UPV/EHUkoak ez diren pertsonen parte-hartzea baimentzen duen dokumentua
- Proiektuaren emaitzetan interesa duten erakunde publikoen edo pribatuen babes dokumentala (eskuz egindako jatorrizko sinadura edo onartutako sinadura elektronikoa; eskaneatu gabeak)
- Pilatutako diru-laguntzarik jaso ez izanaren adierazpen zehatza edo, hala badagokio, bateragarritasunari eragin diezaioketen beste diru-laguntza, bestelako laguntza, diru-sarrera edo baliabide publiko edo pribatuen zerrenda zehatza (eredua ikus daiteke UPV/EHUren web orrian) (eskuz egindako jatorrizko sinadura edo onartutako sinadura elektronikoa; eskaneatu gabeak)

Dokumentazio originala, eskaneatuta, barneko posta bidez bidaliko da helbide honetara (ez erregistroaren bitartez):

Ikerketaren arloko Errektoreordetza
Deialdi atala
Errektoregoa - Leioako Campusa
Sarriena auzoa, z/g
Leioa 48940

INFORMAZIO GEHIAGO

Hauek dira eskaera betetzeko behar diren UPV/EHUren datuak:

- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, z/g
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa
- **Ordezkarri legala:** Jose Luis Marín González
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea

EPEAK

2017ko ekainaren 19tik uztailaren 10ko 15:00ak arte, Giza eta Gizarte Zientzien Sail Teknikoari (DTHCS) dagozkion eskabideak:

Arloa: Gizarte Zientziak (CSO)

- Azpi-arloak: - Komunikazioa (COMU)
- Politika Zientziak (CPOL)
- Geografia (GEOG)
- Soziologia (SOCI)

Arloa: Kirol Zientziak (DEP)

Arloa: Zuzenbidea (DER)

Arloa: Ekonomia (ECO)

Arloa: Hezkuntzaren Zientziak (EDU)

Arloa: Ikasketa Feministak, Emakume eta Genero Ikasketak (FEM)

Arloa: Filologia eta Filosofia (FFI)

- Azpi-arloak: - Filologia (FILO)
- Filosofia (FISO)

Arloa: Historia eta Arteak (HAR)

- Azpi-arloak: - Arteak (ARTE)
- Historia (HIST)

Arloa: Psikologia (PSI)

2017ko ekainaren 20tik uztailaren 11ko 15:00ak arte, Bizitza Zientzien eta Nekazaritza Elikagaien Sail Teknikoari (DTCV) dagozkion eskaerak:

Arloa: Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Baliabideak (AGL)

- Azpi-arloak: - Akuikultura eta Arrantza (ACU)
- Nekazaritza (AGR)
- Elikagaien Zientzia eta Teknologia (ALI)
- Oihanzaintza (FOR)
- Abelzaintza (GAN)

Arloa: Oinarritzako Biologia (BFU)

- Azpi-arloak: - Biologia Integratua eta Fisiologia (BFI)
- Biologia Molekularra eta Zelularra (BMC)

Arloa: Bioteknologia (BIO)

Arloa: Biomedikuntza (SAF)

- Azpi-arloak: - Organo handien fisiopatologia eta gaixotasunen genetika (SP1)
- Minbizia (SP2)
- Farmakologia, nanomedikuntza eta terapia genikoa eta zelularra (SP3)
- Nerbio sistemaren gaixotasunak (SP4)
- Immunitatea eta Infekzioa (SP5)

2017ko ekainaren 21etik uztailaren 12ko 15:00ak arte, Ingurumen eta Baliabide Naturalen Sail Teknikoari (IBNST) dagozkion eskaerak:

Arloa: Eraikuntza (BIA)

Arloa: Bioaniztasuna, Lur Zientziak eta Aldaketa Globala (CGL)

- Azpi-arloak: - Biodibertsitatea (BOS)
- Lurraren Zientziak (BTE)
- Atmosfera, Klima eta Aldaketa (CLI)

Arloa: Ingurumen Teknologia eta Zientziak (CTM)

- Azpi-arloak: - Ikerketa Polarra (ANT)
- Itsas Zientziak eta Teknologia (MAR)
- Ingurumen Teknologia (TECNO)

Arloa: Zientzia eta Teknologia Kimikoak (CTQ)

Azpi-arloak: - Oinarrizko Kimika (BQU)
-Teknologia Kimikoa (PPQ)

Arloa: Energia (ENE)

Azpi-arloak: - Ordezko Energiak (ALT)
-Ohiko Energiak (CON)
-Fusio Termonuklearra (FTN)

Arloa: Garraio Baliabideak (TRA)

2017ko ekainaren 22tik uztailaren 13ko 15:00ak arte, Komunikazioen eta Ekoizpen Teknologien Sail Teknikoari (DTPC) dagozkion eskaerak:

Arloa: Astronomia eta astrofisika (AVA)

Arloa: Diseinu eta Produkzio Industrialak (DPI)

Azpi-arloak: - Diseinu eta Produkzio Industrialak (DPI)
-Ingeniaritza Biomedikoa (IBI)

Arloa: Ikerketa Espaziala (ESP)

Arloa: Fisika (FIS)

Arloa: Partikulen Fisika eta Azeleragailuak (FPA)

Arloa: Materialak (MAT)

Arloa: Matematika (MTM)

Arloa: Komunikazioen Teknologia eta Teknologia Elektronikoak (TEC)

Azpi-arloak: -Teknologia Elektronikoak (MIC)
-Komunikazio Teknologia (TCM)

Arloa: Teknologia Informatikoak (TIN)